

# Muskuilu-kola sintetikoa erabilgarri izan liteke medikuntzan

Muskuiluek arroketa itsasteko erabiltzen duten itsasgarria imitatuz, itsasgarri berri bat sortu dute Illinoisko Unibertsitateko ikertzaileek, eta erakutsi dute medikuntzan aplikazio interesgarriak izan ditzakeela.

Izan ere, muskuiluen itsasgarriak badu abantaila handi bat gainerako itsasgarrien aurrean: gainazal bustietan funtzionatzen du. Alegia, ura ez da eragozpena itsasgarria gogortzeko eta bere funtzioa betetzeko. Hamabost proteinaz osatuta dago muskuilu-kola, eta proteina horietan denetan oso ugaria da DOPA aminoazidoa (dihidroxifenilalanina), bereziki gainazalarekin kontaktuan dagoen zatian. Hain zuzen ere hori hartu dute aintzat ikertzaile estatubatuarrek, eta polietilen glikol izeneko polimero bati DOPA sintetikoa gehitu diote. Horrela lortu dute muskuilu-kolaren oso antzeko propietateak dituen itsasgarria.

Gainazal hezeak itsasteko gaitasun hori oso baliagarria izan liteke



ARG.: © INDUCTIVELOAD

medikuntzarako, hainbat ehun itsasteko, esaterako. Hala, animalia bizietan funtzionatzen duen ikusteko, albutariekin elkarlanean hainbat proba egin dituzte. Zakur baten arterian ebaki bat ixteko erabili zuten arrakastaz, eta orain untxien fetuekin ari dira lanean. Izan ere, gero eta gehiagotan egiten dira ebakuntzak sortzetiko malformazioak (arantza bifidoa, esaterako)

konpontzeko, fetua oraindik umetokian dagoenean. Eta ebakuntza horietan gerta daitekeen fetu-mintzaren haustura konpontzeko itsasgarri egokirik ez dago. Untxietan fetu-mintzean egindako zuloa ixteko erabili zuten, eta, itsasgarririk gabe, fetuen % 40-k iraun zuen bizirik, eta itsasgarriarekin, berriz, % 60k. AAAS-ren urteko biltzarrean eman zuten emaitza hauen berri. ●



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Ororentzat). Bizkaiko Foru Aldundiren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

